

Ainhoa Mindeguia Santesteban
Txomin Hualde Elizalde
Ezekiel Loiarde Santesteban
Pedro Hilario Santesteban Loyarte
Martxel Elizalde Elizalde
Naiara Arretxea Gorosterrazu
(kontuhartzailea)

2025eko urtarrilaren 9an, 19:00tan, ez-ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Domínguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1.- 2025EKO AURREKONTUA

Kontuhartzaileak aurrekontua aurkeztu du eta ondoren bozkatzera deitu du. Udalbatzak aho batez **hurrengoa erabaki du**:

1.- 2025eko aurrekontua hasierako onespina ematea.

2.-2025eko aurrekontua erakustaldi publikoan jartzea hamabost laneguneko epean.

3.- Erakustaldi publikoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hau da aurrekontuaren laburpena:

DIRUSARRERAK:

EUROAK

1. Kapitula.	Zuzeneko zergak:	90.200,00
2. Kapitula.	Zeharkako zergak:	9.571,94
3. Kapitula.	Tasak eta bestelako dirusarrerak:	32.300,00
4. Kapitula.	Transferentzia arruntak:	198.088,80
5. Kapitula.	Ondareko dirusarrerak:	38.000,00
7. Kapitula.	Kapital transferentziak:	147.666,72
9. Kapitula	Finantza pasiboak	150.000,00
DIRUSARRERAK GUZTIRA:		665.827,46

GASTUAK:

EUROAK

1. Kapitula.	Langileen lansariak:	81.730,00
2. Kapitula.	Ondasun eta zerbitzuen gastuak:	115.710,00
3. Kapitula.	Finantza-gastuak:	1.000,00





ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

4. Kapitulua.	Transferentzia arruntak:	115.028,24
6. Kapitulua.	Inbertsio errealak:	342.359,22
9. Kapitulua.	Kapital transferentziak:	10.000,00
	GASTUAK GUZTIRA:	665.827,46

Kontuhartzaileak, 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako toki ogasunei buruzko 248 artikulua azaltzen du eta Udalbatzak aho batez **hurrengoa erabaki du**:

1.- Zubietako udalak fiskalizazio sinplifikatua onartzen du.

***** Naiara Arretxea Gorosterrazu (kontuhartzailea) ateratzen da*****

PLANTILLA ORGANIKOA

Udalburuak 2025eko plantilla organikoa aurkeztu du eta ondoren bozkatzera deitu du. Udalbatzak aho batez **hurrengoa erabaki du**:

1.- 2025eko plantilla organikoari hasierako onespena ematea.

2.- 2025eko plantilla organikoa erakustaldi publikoan jartzea hamabost laneguneko epean.

3.- Erakustaldi publikoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**2.- 2025ERAKO LAN EGUTEGIA ETA EGUN BALIOGABEEN
DEKLARAZIOA**

Alkate udalburuak 2025eko lan-egutegia aurkeztu du, onets dadin. Bertan jasotzen da, orobat, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, ordaindu bai baina errekuuperatu behar ez diren laneko jaiegunen egutegi ofiziala, honako arau hau oinarri hartuta: ekainaren 5ko 493/2024 Ebazpena, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, ordaindu bai baina errekuuperatu behar ez diren 2025eko asteguneko jaien egutegi ofiziala ezartzen duena (2024ko 145. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, uztailaren 16koa). Hona hemen:



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Nafarroako Gobernuak ofizialki izendatutako jaiegunak, baita Zubietako gainerako jaiegunak ere:

- Urtarrilaren 1a: Urteberri eguna.
- Urtarrilaren 6a: Errege eguna.
- Urtarrilaren 17a: San Anton eguna (Bertako jaieguna)
- Apirilaren 17a: Ostegun Santua.
- Apirilaren 18a: Ostiral Santua.
- Apirilaren 21a: Pazko bigarrena.
- Maiatzaren 1a: Langileen eguna.
- Uztailaren 25a: Done Jakue eguna.
- Abuztuaren 12a, 13a eta 14a: Herriko festa egunak.
- Abuztuaren 15a: Ama Birjinaren Jasokundea.
- Azaroaren 1a: Santu Guztien Eguna.
- Abenduaren 3a: San Frantzisko Xabierkoa.
- Abenduaren 6a: Konstituzioaren eguna.
- Abenduaren 8a: Sortzez Garbiaren eguna.
- Abenduaren 25a: Eguberri eguna

Urteko lanegunak 246 dira eta horiei kendu behar zaizkie 27 opor egun eta norberaren aferetarako 3 egun; beraz, azkenik, 216 lanegun dira, eta egiazko lanorduak 1.592.

Lanaldia, oro har, astelehenetik ostiralera bitartekoa izanen da, eta 7:40etatik 15:00ak arte lan egin beharko da; gainerako denbora egiteko, langileek aukeratzen ahalko dute malgutasunez.

Aipatu lanaldiaren banaketa ez zaie aplikatuko, zerbitzuaren beharrak direla eta, lanaldi berezia dutenei, ezta ordu konpentsazioren bat dutenei ere (txandakako lana, gauekoa, etab.); horiek lan-egutegi berariazkoa izanen baitute.

Zubietako Udalean jendea hartzeko eta bertako Erregistro Orokorra irekita egoteko ordutegia 8:00etik 11:00ak arte da, astelehenetik ostiralera.

Bozketa egin ondoren, aho batez onetsi dira honako erabaki hauek:



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Lehena.—Onestea 2025. urterako lan-egutegia.

Bigarrena.—Baliogabeak izanen dira, epeak kontatzeari dagokionez, larunbat eta igande guztiak, eta arestian aipatutako egunak, jaiegunak baitira.

Hirugarrena.—Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) eta Zubietako Udaleko iragarki- taulan argitaratzea.

3.- HERRIKO OSTATUA

Udalbatzak azaldu du, Zubietako Herriko Ostata errentan atera zela 2025eko urtarrilaren 2an bukatuz proposamenak aurkezteko epea. Ez zen inor aurkeztu. Gaia eztabaidatu ondoren, Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak aho batez hurrengo erabaki du:

1.- Lehiaketa publikoa berriz egitea, Zubietako “Herriko Ostata”ren taberna, ostata eta jatetxe zerbitzuaren errentamendua emateko, eta beharrezkoa den baldintza plegua onestea.

2.- Akordioa Kontratazio atarian eta Iragarki Oholean argitaratzea, 30 eguneko epea emanez interesdunek beraien eskaitzak aurkezteko, 2025eko otsailaren 10a 11:00 arte.

3.- Deialdia zabaltzea.

HERRIKO OSTATUA INAUTETAN

Bestealdetik, ikusirik inork ez dela aurkeztu eta inauteak ospatzen diren egunak aiegatzen direla, herriko ostata irekita egotea oso garrantzitsua dela jakinean jarritz, Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak aho batez hurrengo erabaki du:

1.- Zubietako herriko ostata inauterietan kontratatzeiko hautapen prozesua 2025. irizpideak onartzen dira.

2.- Bandoa zabaltzea 2025eko urtarrilaren 15 arte epea emanez proposamenak aurkezteko

Eta bertzerik ezean, 20:00ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.